

## Literatura →

## Geltokirakoak

Alex Gurrutxaga

Goiatz Labandibarren lehen liburua duzu *Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak*. XIV. Igartzia Saria irabazi zuen bere proposamenak eta urte hasieran argitaratu duete hamabi ipuinez osatutako bilduma. Izenburuaren bigarren atala ipuin batetik hartua da eta *Geltokiak* hitzak, berriz, bildumaren elementu oinarrikoena zein den erakusten du: ipuin bakoitza Europako hiri batean kokatzen da eta bertako geltokiak beti du, gutxi-asko, zer esana.

Geltokia heterotopia bat da, *nulle part* bat, pasaerako tokia, ez hemen eta ez han egotekoa. Halaber, geltokiak bidaia suposatzen du, eta bidaia aldaketa. Ipuinotako pertsonaiek ere aldaketak bizi dituzte, bizitzaren joan-etorriak, eta agertzen diren erlazio gehienak ahul eta aldakorak dira. Izan ere, heterotopiek, espazio nagusiek ez bezala, ez dute sendotasunik iradokitzen.

Bildumako geltoki esanguratsuen Hendaiaakoa da. Bi ipuin daude hari lotuta, lehena eta azkena, bidaia borobila osatuz. Gai-

nera azken ipuina zahartzeari buruzkoa da eta tematikoki ere ixten du liburua. Bi narrazio hauek geltokiaren esanahi bana planteatzen dute. Lehenengoan konpromisoa balioesten da. Indibidualismoak eta autonomia nahiak giza erlazioak baldintzatzen dituzten honetan, testuak honela dio: «hirugarren aldiz ere maitemindu behar delako zenbaitetan bikoteaz». Eta lehen ipuinean geltokia eta trena hurbiltzearen irudi diren bezala, azken ipuinean urrutzea irudikatzen dute: geltoki batean bereizi ziren bi pertsona ez dira berriz hain hurbil egongo.

Narrazioetako gai garrantzitsuenak giza-harremanekin dute lotura: bikote erlazioak, familia-koak, maitasuna, adiskideak, e.a. Pertsonaiek dira gakoa, beraz. Bidaia, immigrazioa eta herritik joatea ere gai garrantzitsuenak dira. Esan behar da ipuin askotan norberaren askatasuna eta independentzia aldarrikatzen dituztela pertsonaiek. Areago, zenbaitetan agerikoak dira familia-erikiko lotura falta (*Niza*-n adibidez), konpromisorik eza eta indibidualismoaren aldeko jarre-

rak: esaterako *Trieste* ipuinean («Eta norberak nahi duena egin behar duela...»), edota *Gemoa*-n («Eta ez bata ez bestea ez zirela inoiz inori lotuko»).

Kontatekniketan molde tradizionalak dira nagusi: ia ipuin guztiak hirugarren pertsonan eta iraganaldian kontatuak daude. Jakina, horrek ez dio axola baldin eta beste zerbaitek irakurlea eramaten badu. Baina neuk behintzat ez dut sumatu generoak eskatzen duen intentsitateirik. Istorio eta elkarrizketa zenbaitak



**'GELTOKIAK EDO HELDUTA ENTZUTEKO ABESTIAK'**

- Egilea: Goiatz Labandibar.
- Argitaletxea: Elkar.

sinesgarritasun gutxi dutela ere esango nuke (*Marseilla*-k edota *Venezia*-k, adibidez). Bada, halaber, hainbat bider erabiltzen den errekurtsio bat: ipuin batzuetan aforismo moduko bat-edo agertzen da («bizitzari beti eman behar zaizkio bi aukera», «maitasun gutunak bizitzan behin jasotzen dira», e.a.), eta horren inguruan bilbatzen da istorioa, batzuetan emaitza txukunarekin (*Marseilla*-n, adibidez), nahiko behartuta beste batzuetan (*Venezia*-n, kasurako).

Hizkera arina da, beharbada estiloaren distiraren kaltetan, eta liburua erraz irakurtzen da. Azken ohar bat. Iruditzen zait literatur kritikak ez duela gramatikaz hitz egin behar, edo behintzat seinale ona dela hartaz hitz egiteko arrazoirik ez izatea. Kasu honetan, ordea, ezin aipatu gabe utzi italiarazko esapideetan akatsak daudela eta, larriagoa den kontua, hitanoa erabiltzen den kasuetan ugariak direla akatsak.

Azken batean, bidaia entretene-garria eta irakurteraza proposatzen du liburua. Akaso maitzen falta suma lezake irakurleak, literatura falta.



**'FIRI-FIRI, IPUIN ETA NAHASTE'**

- Egilea: Paulo Zamarripa.
- Apailatzaileak: Nagore Etxebarria eta Maribi Egia.
- Argitaletxea: Labayru lkastegia.

*Gaceta del Norte*-n argitaratutako artikuluarekin 1935ean kaleratutako liburua moldaketa eguneratu da. Txitxu bere zerbitzariarekin egileak izandako solasaldi ironikoak biltzen ditu, Txorierriko euskara baliatuta.



**'GABRIEL ARESTI IPUIN LEHIAKETA (2010-2011)'**

- Argitaratzailea: Bilboko Udala.

Lehiaketaren 29. aldian, 2011n, Jose Inazio Basterretxea saritu zuten, *Berunezko iretargia Quilates baporean* lanagatik, eta Jon Abrilren *Artesiak barrean* lanak irabazi zuen accesit saria. 2010ean, Iñaki Basterretxearen *Iraultza gaueko erreleboan* lanari eman zion sari nagusia epaimahaia.



**'JOXE ZAPIAINEK BERTSO-MALKOAK'**

- Egilea: Pio Perez Aldasoro.
- Argitaratzaileak: Labayru lkastegia eta Zornotzako Udala.

Zornotzako Udalak emandako Santi Onaindia bekari esker, Zapiainen bertsoetan sakondu ahal izan zuen Perez Aldasoro antropologoak. Zapiainen istorioari heldu zion, gerrak pertsonengan eragiten duen sufrikarioa azaltzeko.

↓ Haur eta gazte literatura

## Paperak trukatzten

Inanol Mercero

Askorako ematen du Alberdi & Akerreta literaturgileen lan honek.

Egituraz sinplea, testuz laburra eta irudiz ongi hornitutako album ilustratua da, mokadutxo batean irakurtzen den horietakoa. Tamaina ertaineko formatu karratua du (22x22 cm), tapa gogorak, 32 orrialde.

Ilustrazioa arkatzez urratutako arrastoeekin egin da. Pertsonaia guztiak buruhandi eta moztakak dira. Haurrak eta euren eraginpeko mundua bizi-bizi agertzen dira, kolorez ongi hornitutak; helduak eta euren eraginpeko mundua, aldiz, zuri-beltz hitsean.

Narrazitzaileak gu (haurrak) eta zuek (helduak) dio, haurren eta helduen munduak parez pare jarritz.

Testua errepikapenean oinarritzen da. Bi-orrialdeko bakoitzean ideia beraren nabardura bat dago, denera mailuka sartzen diren hamalau baieztapen: «Txiki-

kitzen zaretenean...», esaten zaigu; hori gertatzean *heldukeriak* albo batera utzi eta dena haurren munduan bezala izango da, dena kolore, dena jolas, dena irribarre... Peter Panen Sekula Betiko uhartearen bezala.

Errepikapen teknika honekin mezua justifikatzen duten arrazoiak ematen dira, haurren mundu idealizatu bat hartzen da helduen mundua zein grisa den erakusteko. Testua disertazioaren eremuetara hurbiltzen da, irakurleari jokabide zuzena zein den erakusteko.

Hortaz, liburua serio demonio jarrita irakurtzen badugu, obra honek proposamen trinkoa dakarkigu, kritika soziala, irakurketa konprometitua, bakoitzak — haurrak zein helduak — jokatzen duen papera baieztatzeko. Haurrak helduari irakurriko dio, «Txikitzen zare(te)nean — esan dio maleziak — ez duzu(e) lanera joan beharrik izango». Eta horrela testuak edota gogoak ahitu arte.

Beste puntan, irakurketa ludi-

koa eginez, «Txikitzen naizenean — esango dio helduak haurrari aurpegi bihurria jarritz — putzue-tan salto egingo dut, zapaburu bihurtu arte». Eta heldua pape-rez aldatuta ikusten duelarik, haurra harritu egingo da. Jakin-minak kitzikaturik, txikitako pasadizeoz galdetuko dio eta heldua pozik — horren irrikatan baitze-



**'TXIKITZEN ZARETENEAN'**

- Egilea: Uxue Alberdi.
- Ilustratzailea: Aitziber Akerreta.
- Argitaletxea: Pamiela-Kalandra.

goen — bere jolasak, bere bihurrikeriak eta pasadizeoak kontatzen hasiko da; haurrari segituan da-mutuko zaio eta esango dio ezetz, haurra bera dela, eta heldua bera zaintzeko dagoela... Ziurrenera hauxe izango da punturik mamitsuena, haurrak bakoitzaren iza- era eta papera azpimarratzeko aukera izango baitu.

Hala, album honek hitz egina-razten digu helduok dugun bizi-moldeaz, esanarazten ea zorion-tsu ote garen. Gure baitarako pentsarazten digu nola azalduko diegun hau dena haurrei eta nola mintzatzen garen haurrekin ha-lako gai serioez. Eta hitz egina-razten digu, halaber, helduen eta haurren arteko harremanaz, haurren haur izateko eskubide-az, haurren munduaren idealiza-zioaz eta, oro har, gure gizarteak belaunaldi bakoitzari gaizki-ongi ezarritako topiko eta mugarriez.

Haurren adinaren eta izaera-ren arabera erabaki beharko dugu ikuspuntu seriotik ala ludi-kotik jo, haur batzuek ez baitute jasaten helduak tximinokeriatan ikustea, ez bestetzuk gai serioe-kin erretolikan aritzea. Era bere-an gogoan izan haurra(k) eta hel-dua(k) elkarrekin irakurtzekoa dela.